

GERRA HASI DA

1936ko uztailaren 18an

hasiko da gerra Espainian. Egunkariak irakurriz gero, matxinada kontrolpean zegoela dirudi, hasieran behintzat. 19an Gobernuak matxinatuek aldarrikatutako gerra-egoeraren deklarazioa baliogabetu zuen, Espainia ez zegoen gerran! Baina ordurako berandu(egi) zen!

Altxamendua gutxietsi zela? Baliteke, harritzekoa baita Errepublikako agintarien "epeltasuna". Konfidantza larregi? Estrategia hutsegitea? *Ikusi eta gero, denak jakintsu*. Jakin, bazekiten kolpistak konspiratzen zebiltzala baina orduko presidentek, Casares Quirogak, ez zuen neurririk hartu, ez behintzat nahikorik edo egokirik². 17an Melillan eta 18an Sevillan altxatu ziren errebeldeak, ondoren Espainian zehar zabaldu zen errebolta. Kolpe militarrek ez zuen arrakastarik izan baina Errepublikak ere ezin izan zuen errebeldeekin akabatu, beraz gerra luze eta odoltsua hasitar zegoen. Gerra ondorengo gerraostea ere ez zen, ez, gozoa izan! Su eta gar menderatu zuten tropa frankistek agintea, beste 40 urte gehiago luzatuko zela errejimene hura ez zegoen inoren kalkuluetan. Lekeitiok nola bizi izan zuen garai hori saiatuko naiz zuongana hurbiltzen.

1 Antzeko zerbait gertatu zen 1868an La Gloriosa iraultza garaian. Orduan ere, agintariek bazekiten zertan zebiltzan Prim eta enparauak, konspirazioaren jakinean zeuden baina ez ziren ekiditeko gai izan. Gauzaeza, ezintasuna..., halabeharria esango lukete batzuek, nork daki!

2 Ezaguna da, baina horrek ez du egia bihurtzen, Casaresek kazetariari uztailaren 17ko gauean erantzundakoa militarrek altxatu ziren berri eman ziotenean:

«¿Así que los militares se han levantado en Marruecos? Pues yo me voy a dormir».

Esan bazuen ere, eta ez dut uste, jendea lasaitzeko esango zuen, ondotxu baitzekien egoera larria zela edo izan zitekeela. Casaresek ez zuen gau hartan ez hurrengoan lorik egin. Biharamunean, 18an, dimititu zuen, matxinadak Afrikatik penintsulara salto egin zuen egunean.



N ARMAS

¿Por qué lucha?

Por la civilización cristiana.

Por la justicia social.

Por la libertad patria.

